

...eta

Kitto!

933 zkio.
2015-VI-5



Parrandan auzorik auzo

R.P.S. Nº 109/10 LLG.



ZURE BIGARREN LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI VARILUX®

ERABATEKO BABESA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2

Tel.: 943 20 05 22

EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan



by Joana Diestre
LA ESPOSA

OUTLET

Emaztegai soinekoak 2015

R. Bundó, Yolancris, J. Peiró, Cymbeline,
La Sposa, Aire, S. Patrick...

%30 - %50_{eko}
DESKONTUAK

Soinekoak agortu arte

La Esposa by Joana Diestre:
Gran Vía 80, Bilbao / 944423774

Joana Diestre:
Máximo Agirre 20, Bilbao / 944392363

Joana Diestre. El Corte Inglés:
Gran Vía 7, Bilbao / 944256258

La Esposa by Joana Diestre:
Estaziño kalea 14, Eibar / 943247844

La Bambolina by Joana Diestre:
Avda Peñota 7, Portugalete / 946562476



Eskatu informazioa ▶



Gure denda egindako desfilea.

Jaietako edo amabitxi
soinekoa erosterakoan

%20_{ko}
DESKONTUA

egingo diegu **opari-txekean**
Eibarko dendan erabiltzeko.

Aukera dute ere Bilbon erosita soinekoa
Eibarren probatzeko, etb. Gauza bera gure
bildumako neurrira egindako soinekoarekin.



Gure denda egindako desfilea.

Joana Diestre-k DENDA BERRIA zabaldu du Bilboko El Corte Inglés-ean

ASTEAN ESANAK

"Hain gara herri pobrea,
non, bertako batek zerbait
ona egin duela ohartzeko,
Madrldik pasatu behar den"

(ARANTXA ITURBE,
KULTUR. KAZETARIA)

"Gaixok jakin beharko
lukete 'gutxiago hobe'
dela. Sendagileok
ezezkoaren etikari hazi
beharko genituzke. Bestela,
beldurrak osasunaren
espropiazioa dakar. Gaur
egungo sistemak eraginda,
Larrialdiak arduratutako
jende osasuntsuekin beteta
egoten dira eta benetan
zerbitzu hori behar duenak
itxaroten egon behar"

(JUAN GERVÁS,
SENDAGILEA)

"Jo dezagun ume bat esaten
ari dela jo egiten dutela; ba
argitu egin behar da hor zer
ari den gertatzen, eta hitz
egin behar da ustezko
erasotzaileen gurasoekin
ere... azken horiek askotan
ondo hartzen ez badute ere.
Gogoan dut kasu bat
haserretu egin zirela euren
semei erasotzaileak esan
zietela-eta; nola deitu behar
zaio ba eraso egiten
duenari?"

(ARANTXA BELASTEGI,
HEZKUNTZAKO AHOIKULARIA)

"Edoskitzeak haurtxoa
kutsaduratik babesten
laguntzen du. Amak
haurdunaldian kutsaduraren
aurrean izandako
esposizioak eragin
kaltegarria dakarkio umeari,
baina efektu hori desagertu
egiten da titia hartu duten
haurtxoengan. Nikela,
manganesoa eta beruna
neurotoxikoak dira eta,
Europarekin alderatuz, gure
arteana maila ikaragarri
handiak dira"

(AITANA LERTXUNDI,
INGURUMEN ZIENTZIALARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KOKOT.- Lepoa, lepondoa. "Okotz-bikuan eta kokotian igartzen jago barau asko egin ez dabena".

KOKOTALDE.- Kokot ingurua, lepondoa. "Buf! hau samiau barriz txarrixau!, buf! ezta... ezin
doblau hau kokotaldiu!".

KOKOTEKO.- Kokotean emandako kolpea. "Kokoteko bat emonda bialdizu!".

eskutitzak

GOGOR EGINGO DUGU EIBARTARRON ALDE

Dagoeneko egun batzuk igaro dira 2015ko Udal
Hauteskundeak egin zirenetik. Ezker Anitzak, IUk,
Equok, Alternativa Republicanak eta multietzker al-
derdietatik **Irabazi Eibar** osatzen duten hautagai-
zerrendatik 904 eibartarroi eskertu nahi genieke
maiatzaren 24an hauteskontzian emandako konfi-
dantza. Lortutako emaitzak ilusio handia egin digu,

Eibarko auzo ezberdinetako islada direlako eta
emandako botuek ehuneko bosta gaintitzea ekarri
digutelako. Guk, udalbatza sortzen den unetik, go-
gor egingo dugu lan aldaketaren alde, eibartarron bi-
zimodu egoeran eta gure herriko ingurugiroan one-
rako eragiteko ahalegin guztia eginez. Mila esker!

EIBAR IRABAZI

ZORIONAK 50. EUSKAL JAIARI

50 urteko historia biribildu genuen joan zen as-
teburuan. Entseguen hasita, liburu eta doku-
mentala jarraian, eta egitarau oparoa bezain bete-
arekin amaitzeko asteburuan.

Eguraldia alde genuela barixakuan arratsaldeko
17.00etan eman genion hasiera egitarauari eta, ia
geratu gabe, domekako 20.15era arte luzatu ge-
nuen jaia. Asteburu osoan Euskal Jaia izan da pro-
tagonista Eibarren, Euskal Kulturaren adierazpen
ugarirekin, eta Euskara horien bizkar hezurra bihur-
tuta. Liburua eta dokumentala historiaren lekuko
gisa geratzen dira nahi duenaren eskura.

Hori guztia lortzeko osagai asko behar dira: era-

kunde potente baten babes fisiko zein ekonomi-
koa; batzorde bat urte osoan lan itzela egiteko
prest; beste hainbat erakunderen inplikazioa eta
laguntza; elkarte gastronomikoak eta inguruko ba-
serriak; laguntza profesionala; laguntza instituzio-
nala; 150 lagun baino gehiagoren inplikazioa, bo-
rondatea eta laguntza; enpresa eta denda batzuen
jarrera ezinhobea; denda eta tabernen saiakera;
eta, batez ere, Euskal Kulturari, Euskarari, baietz
esaten dion herri bat, giro alai eta parte-hartzaile-
an baietz esan diona 50 urte bete dituen Euskal
jaiari. **Eskerrik asko eta Zorionak den denoi!!!**

KLUB DEPORTIBOKO KULTURA BATZORDEA



Euskara Elkarteak

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /

publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Jaixak Urkiko kaliak hartuko ditte

Gaur arratsaldian hasi eta domekara bitartian, asteburu osua beteko dabe Urkiko jaixak. Programia astelehenian, Aterpe alkarte gastronomikuan presentau eben jai batzordekuak. Hamazazpigarren urtez antolatu dittuen jaixen egitarauak azken urtiotakuari eutsiko detsala azaldu eben presentaziñuan eta, betiko lez, umiendako jarduerak, musikia eta txapelketak tartekatu dittue.

Gaur 19.00etan ekingo detse jaixari Arrateko Andra Mari ikastetxian. Arratsaldia umiendako jokuak, auzoko zaharri egingo detsen omenaldixak eta Ustekabe eta Irulitxa fanfarrekuak girotuko daben txikiteuak beteko dabe. Gabian, barriz, eskolako patixuak rantxerak eskinduko dittuan mariatxixaren saiua hartuko dau. Zapatu goizerako preparau dittuenen artian Urki-Kurtzekuan egingo dan IV. Txiki Krosa, trikitalari eskolakuen diana eta umiendako eskolan ipiñiko daben jolasgunia dagoz. Eguardixan, trikitalarixak girotuta, saldia eta txorizua banatuko detse jen-

diari Ceba eta Vila tabernen pareko arku-pietan. Eta arratsaldeko ekitaldi nagusiña Tarumba Percusion taldekuak alaittuko daben txanpana eta otarrainxka jaixa izango da. Auzoko tabernarixen laguntasunari esker 160 kilo langostino eta 360 txanpan botilla banatuko dittue. Eskolan herri-afarixa amaittu eta jarraixan berbenia hasiko da Continente orkestarekin.

Eta domekan, 09.30xetan abiatuko dira Atzegikuak urteroko mendi martxan, VII. Mendi Lasterketan parte hartuko dabenak antxixketan egitten hasiko diran ordu berrian. Korrikalarixak 18'5 kilometro dittuan Urki/Galdaramiño/Topinburu/Azkonabitza/Urki ibilbidia egingo dabe, maldan gora eta behera antxixketan. Eguardittik aurrera auzokidien artian demaseko arrakasta eukitzen daben XVII. Paella Lehiaketia hasiko da. Epai-mahaikuak 14.00xak aldera emongo dabe euren erabagixaren barri eta jarraixan, animatzen diran guztiak lehiaketarako preparatzen dittuen paellak jateko eskolan egingo daben herri-bazkarixan gera-



Aterpe elkarte gastronomikuan egin eben 17. ediziñoko aurkezpena. SILBIA HERNANDEZ

tzeko aukeria eukiko dau. Eta arratsaldian, 16.45 etatik aurrera Trapero antzerki taldekuak "Tarantella" umiendako ikuskizuna eskinduko dau. Amaitzian txokolate-jana egingo dabe eta, horrekin batera, jaixetako txapelduneri premixuak banatuko detses. Jaixak Agirrek girotuko daben dantzaldixakin agurtuko dittue, datorren urterarte.



Debabarrena Ekinean Azokia

Gaur eta bixar Debabarrena Ekinean Azokia hartuko dau Untzagako karpak, Debegesak oin dala urte bi abiarazi eban Ekintzailetza Foruak antolatuta. Gaur 20.00etaraiño egongo da zabalik eta bixar, barriz, 11.00etatik 21.00xetara eta sarrerira irekixa eta doakua izango da. Asmo nagusixa ekintzaillieri laguntzen detsen eragillieri buruzko informaziñua ezagutzera emotia da eta, horrekin batera, beste hainbat jarduera osagarri preparau dittue azokaren harira: gaur 18.00etan Roberto Lopez Etxeberria di-

señadoriak bere bizipenen barri emongo dau hitzaldi batian (udaletxe barruan egingo dau berba) eta, gurasueri hitzaldi bat juateko aukeria errazteko, ordu berrian 2 urtetik gorako umiendako taillarra antolatu dabe karpan; eta bixar 11.00etan eskualdeko hainbat ekintzailliek enpresia sendotzeko ilusiñuari zelan eutsi azalduko dabe; eta 17.00etatik 21.00xetara, barriz, antolatzaillie, parte-hartzaillie eta herrittarrak ekintzaillietzari buruzko lan saio batian jarduteko aukeria eukiko dabe.

Aterpetxia zabalik

Astelehenaz geroztik zabalik dago Arrateko aterpetxia. ATERI Egoitzak eta Aterpetxeak Sarekuak kudeatuko dabe aterpetxia eta talde desberdiñeri (eskolatako ikasleri, famelixeri, lagun taldieri, kirol-taldieri, erakunde sozial eta kulturaleri) zerbitzua emoteko asmua dakela azaldu dabe. Horrekin batera lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleri bereziki zuzendutako hezkuntza-programia eskinduko dabe 2015-2016 ikas-turteetik aurrera. Bestalde, aterpetxiaren beheko pisuan aurtengo otsaillian inauguratu eben Gerra Zibilaren Interpretaziño Zentrua dago eta domeka goizetan duan bisitatzeko aukeria egongo da.



Enpreseri .eus aurkezten

Gure eskualdeko enpreseri .eus domekiñuaren inguruko informaziñua azaltzeko jardunaldixa antolatu dabe Debegesak eta PuntuEus fundaziñuak hillaren 12rako, "Ostiralak Debegesan" ekimenaren barruan. Saiua 09.30xetan hasiko da, Debegesaren egoitzan eta parte hartzia doakua izango da, aurretik izena emonda (debegesa.eus atarixan, 943820110 telefonuan edo pymes@debegesa.com helbidera deittuta).



Kanpoko igerilekua bixar zabalduko dabe

Bixartik aurrera martxa betian zabalduko ditue kanpoko igerilekuak. Iraillaren 13ra arte egunero zabalduko dabe piszina, goizeko 10.30etatik illuntzeko 20.00ak arte.

autuan

ENERGIXA AURREZTEN

Debegesak abiarazi daben "Debarrenien energia aurreztuz" programiaren barruan, etxeko elektrizidadiaren fakturia hobeto ulertzeko eta energixa-konsumuan aurrezteko aholkuak emateko informaziño puntua ipiñiko dabe Untzagan, udaletxeko arkupietan, ekaiñaren 9xan eta 12xan, 10.00etatik 14.00xetara eta 17.00etatik 20.00etara. Kanpaiña horren barruan, gure eskualdian dagozen energixa barriztagarrixen zentruak ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditue: ekaiñaren 20xan Soralezuko Sologoen Zentral Hidroelektrikua ezagutzera juateko bisita egingo dabe. Informaziño gehixagorako 943820110 telefonora deittu edo energia@debegesa.com helbidera idatzi.

1948-XAN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotakuak ekaiñaren 13an alkarrekin afalduko dabe. Juan nahi dabenak 60 euro sartu biharko ditte Laboral Kutxako 3035 0078 87 0078103181 kontu zenbakixan, izen-abizenak zihertzuta (azken eguna bixar izango da).

Ekaiñaren 21eko ekitaldixetarako sarrerak

Gure Esku Dago herri ekimenak deittuta, ekaiñaren 21ean erabagitzeko eskubidiaren aldeko kataiak eta bestelako ekitaldixak egingo dira Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baionan. Eibartarri Donostian egingo diranetan parte hartzia egokitu jaku. Programia egun osokua da, baiña horren barruan ekitaldi bi izango dira berezixenak: 12.00xetatik 12.30xetara oihal-kataia osatuko da Urumeako sei zubixetan eta 17.30xetan Anoetan ekitaldi nagusixa egingo da. Donostiara jua nahi dabenendako sarrerak salgai ipiñi ditue herriko taberna hauetan: Kultu, Guridi, Zazpi, Gurre-Leku, Txurrit, Depor, Hirurok, Beleko eta Nuevo. Helduen sarrerak 10 euro balixo dau eta 14 urtetik beherakuenak, barriz, 5 euro. Bestalde, bixar arratsaldian, 19.00etatik aurrera Depor parian mahaixa ipiñiko dabe, sarrerak ezeze kamisetak eta bestelako materixala erosi nahi dabenendako. Informaziño gehixagorako gureeskudago.eus webgunian begiratu.





Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>📞 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena



www.eitek.net

asteko
14.779
datua

ikusle hartu zittuan
Coliseuak iaz egindako
33 antzezkiuz eta
34 kontzertutan; ekaiñeko
8 ikuskizunak 3.300 lagun
batu zittuan eta bakotxera
juandakuen batzbestekua
400 lagunekua izan zan.



"We are Magma" museuan ikusgai

Atzo arratsaldian zabaldu eben "We are Magma" izenburuko erakusketia Armagintzaren Museuan. Eibarko Anemona Studioa diseinu grafikorako enpresiak, Sortumedia eta Li&Co enprekin batera sortu daberen Magma errobia eta markia eza-gutzera emoteko asmuarekin antolatu daberen erakusketia hillaren 12ra arte egongo da zabalik, eguaztenetik zafatura 16.00etatik 20.00etara eta domeketan, barriz, 10.00etatik 13.00era.


Euskeriaren astia San Andresen

Maiatzeko azken egunetan ospatu dabe Euskeriaren Astia San Andres ikastetxe-kuak. Bestiak beste umiendako bertso emanaldixa, gurasuen ipuin-kontalari saiua, eskolako jolastokixan murala margotzia... osatu dabe aste osorako programia eta horrekin agurtu dittu ikastetxiak bere sorreriaren 50. urtemugaren harira antolatutako ekitaldixen agendia. Argazkixan, 3. maillakuak "Euskara da Euskal Herri" abestixa kantatzen.



Eskola Publikuaren jaixa

Domekan ospatuko dabe Elgoibarren Euskal Eskola Publikuaren jaixa. Agintarixak 11.00etan inaugurauko dabe Herri Eskolan "euskalduna, irekixa, koloretsua eta guztiok gozatzeko pentsauta" prepa-rau daben jaixa eta orduantxe hasiko dira "Jaku, jata" abestixarekin dantzari ikastetxeko ikasliak, Kalegoen plazan. Antolatzailliak egun osorako programia prepa-rau dabe: Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen ikuskizuna, baratzta, malabare eta munduko taillarrak, jolasak, rokodromua, herri kirolak, esperimentuen txokoa, Niala Magoaren ikuskizuna, puzgarrixak, Lauroba taldiaren kontzertua... Egita-rau osua www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus helbidian irakorri eta jaitxi leike.



Urko Tools enpresari sarixa

Eibarko Urko Tools (Urko Ocamica Hermanos) enpresiak sarixa jasos dau oin dala egun batzuk Barakaldoko BEC-n egin dan Ferroforma azokan, Produktu eta Marken Barrikuntza Sarixen bigarren ediziñuan. Otaolan dagan taillarrak industria-hornikuntzarako produktu barrizatzaillienaren atalian eskuratu dau sarixa, erretratuan ikusten dozuen estutze-hidrauli-

korako torniketiar esker. Saritu daberen produktua mundu mailan estutze-aplikaziñuetan teknologixa hidraulikua darabilen baraila bakarra da eta, hori erabillitta, eskuz ahalegin txikixa eginda indar haundixa eragittia lortzen da. Mantenimientuan, muntaia-katietan, aroztegi metalikuan, trokelexan eta beste hainbat jardueratan erabilli leike.



250 euroko sei sari maiatzian

Eibarko Dendarien Elkarteak bezeruen artian 250 euroko sei sari banatu dittu maiatzian eta irabazliak premixua jasotzerakuan etaratako erretratuan ikusten dittuzuenak izan dira: Isabel Lopez de Ziordia (Kantoi), Ruben Oscar Bogno (Benicoba), Agurtzane Bilbatua (Capi), Marisa Guillermo (Lakuesta optika), Charo Garmendia (Pissa) eta Laura Lopez de Guereñu (MN illeapaindegixa). Zorionak!

herritarrekin

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN

PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK

2 MILIOI euro
DEBABARRENA
hobetzeko

60 proposamen jaso dira

www.aurrekontuahobetzen.eus
webgunean

Eskualdeko batzarrean
erabakiko duzue zeintzuk
egingo duten aurrera

Zure esku dago!

ELGOIBARREN
Ekainaren 11n
ostegunean
Kultur Etxean, 18:30ean



Zuk erabakitzen duzu!



Gipuzkoa
BERRIA

Gaixuak gizartiaren ALKARTASUN BILLA

Bixar, goizian eta arratsaldian, organuak emoteko informaziñua eskinduko deskue Untzagan Alcer Gipuzkuakuak, guntzurrun gaixuen alkartiak. Minbizixaren aurkako alkartiaren aldeko diru-batze eguna be bada bixarkua. Halakuak garrantzitsuak izaten dira jendia, eta gizartia orokorrian, sentsibilizatzeko. Badira gaixotasun arraruak, arraruak izan barik emotailien biharra dakenak... epidemixia izan barik gure arreta jasotzeko prest. Eta gutako bakotxari ezer gitxi eskatzen detsenak: alkartasun pixka bat besterik ez. Gutako bati edo ingurukueri tokau aurretik badakagu arduratzeko motiborik... eta baita lagun hurkuari laguntzeko okasiño bat baiño gehiago. Aprobetxau deigun konzientzia hartu eta zabaltzeko.



Post Polio Sindromia gizarteratzen

Aurreko eguaztenian jende askok jarraitu zeban Untzagako Jubilatu Etxian egindako Post Polio Sindromekuen jardunaldixa. Mario Feijoo Euskadiko Elkarteke presidentiak gaixotasun hori dakenen arazuak jakiñarazten ahalegintzen da eta hor dabil, borrokan, bide barrixak zabaltzen: "Sindrome hori dakagunok ahaztuta gagoz, gaixotasun horretaz jabetzen diran medikuak be gitxi batzuk baiño ez dira eta, nora jo jakin barik, guztiz galduta aurkitzen gara: bakotxa bere aldetik, arazua luzatu egitten da, eskuak eta hankak gero eta makalago, jubilañua eskatzera derrigortuta, eta tribunalak be jakin ez dakixela zer egin...". Holan laburbiltzen desku Feijook "gaixuak por exclusión" diran askoren bidegurutzia, "abandonauta eta zure kontura bizitzera" bihartutako askoren arazua.

Formaziñua eta dibulgaziñua biharrezkotzat jotzen badau be -sindromia degeneratibua eta progresibua da-, gaixotasuna tratatzeko neurologo taldia osatzia nahi dabe, "holan halako sintomak dakenak jakingo ebelako nora jo". Estatu maillako alkartiak proposamena aurkeztu eban 2002xan Espaiñiako parlamentuan jubilañuaren aurrian-eta

plana egitteko eta "dokumentua onartu bazan be, ordutik gordeta euki dabe kajoi batian, ezer aurreratu barik". Oin, hillaibete honetan, tratau bihar dabe gaixabarri eta horrek "bakotxa erretratatzeko balixoko dau: PSOEk ez legezko proposamena egin dau errege-dekretua aldatzeko. Ea zeozterarako balixo daben", diño Feijook. Euskal Herrixan alderdixen berba polittak jaso dittuela diñosku Mariok: "Estatuan hori bez, nahiko txarto".

Polioaren ondoko sindromiak gaixueri 55 eta 65 urteren artian dagozenian erasotzen detse gehixen eta juan zan mendeko erdialdittik aurrerako gaixorik ez dago. "Horregaittik askotan pentsau dogu gobernuak-eta, arazuari heldu biharrian, denporia pasatzen lagatzen dabela. Euskadin 1.700 bat izango gara poliuxaren ondorixuak jasaten dogunok". Mediku gitxi dagoz gaixotasuna tratazen dabenak: "Malagan, Bartzelonan, Madrilan eta Bilbon beste bat". Euskadi guztirako Osasun Plana egittia nahi dabe alkartekuak: "Badakigu gure etorkizuna aulki-gurpildunian amaitzia dala; baiña, ahal dan neurrixan, horraiño aillegatzia luzatu nahi dugu". 20 millioi lagun dagoz bakunau barik European eta badago arris-

kua barriro be epidemixia zabaltzeko. Bittartian, Eibarkuaren moduko beste hiru hitzaldi lotzen dihardue alkartian: "Gasteizen, Bilbon eta Donostian emongo dittugu. Eibarren ikusi zan gaixak interesa pizten dabela".

Minbizixaren aurkako Elkartia

Gipuzkoako Minbizixaren aurkako Elkartiak Debabarreneneko bere ordezkari Visesak lagatako Ardantzako lokal batian izango dau. Aurreko astian bildu ziran Fernando Pesquera Gipuzkuako alkarteko presidentia eta Miguel de los Toyos Eibarko alkatia lokal hori egokitzeko tramitiekini hasteko, aurretik Eusko Jaurlaritzarekin izandako kontaktuetan erabagittako konpromisuak egi bihurtzeko bidetik. Minbizixaren Elkartiak azken sasoiaren egitten diharduen lanaren barruan urrats barri baten adierazgarria da ekimen hori.

AECC (Asociación Española contra el Cáncer) alkartiaren probintziako delegaziñuan be deratzi profesionalak dihardue biharrian, musutruk lanian diharduen daben beste 950 boluntarixorekin batera. Alkartiak, bestalde, 5.500 bazkide ditu.



Ekaiñaren 6xan kuestaziño eguna

Bixar dake alkartiaren aldeko diru-batze eguna, "laguntzatik ikerkuntzara eta ikerkuntzatik bizitzarako bide horretan". Alkartian garrantzi haundixa emoten detse bakotxak laguntzeko emoten daben "euro bakotxari, horrek gaixotasuna ikertzeko baliabidiak eskintzen deskulako. Ez hori bakarrik, bizitza be emoten deskulako". Prebenziñuan eta aurretiazko detekziñuan sakontzeko informaziñua eskintziaz aparte, alkartetik gaixuari eta haren famelixari laguntza emoten ahalegintzen dira eta "bereziki haurren kasueri erreparatzen detse".



MUINETARAINO EMAILEAK



Hezur Muina Eman eta
Trasplantatzea,
Guraso Hematopoietikoak

Hezur Muiña Emon eta Trasplantatzea

Hezur-muiña ezinbesteko ehuna da bizitzarako, hor sortzen dira-eta ama zelula hematopoietikoak, odoleko zelula guztiak sortzeko gauza diranak. Ama zelulak hezur-muiñetik eta zirkulaziñoko eta zilbor hesteko odoletik etara leikez. Hori bai, muin-trasplanta arrakastaz egituko gaixuarekiko emotaille bateragarria bihar da. Pertsona bat bere anai-arreba batekin bateragarri izateko aukeria %30ekua da eta bateragarria izan leiken beste famalixako bat aurkitzia %5ian geratzen da. Horregaittik bihar dira borondatezko emotailiak. Eta trasplanta egituko bihar diran ama zelulak hezur-muiña emonda edo, bestela, guraso hematopoietikuen odolian lortu leikez. Gure artian, baiña, hain-

bat desajuste izaten dira: "Españia munduko lehena izanda trasplantieta eta Euskal Herrira odol-emotailien artian, muiñetaraño emotaille gitxi dakaguz, gehixenbat informaziño ezarengaittik", diñosku alkarteko ordezkari batek. "Anbulatorixotan-eta badagoz folletuak, baiña askotan baztertuta geratzen dira. Ebolak eta halakuak oihartzun haundixagua izan dabe. Egin kontu: 2.000 odol-emotailetik bakarra da hezur-muiña emoten dabena". Arazua, gaiñera, larrixa da, bizitzak dagoz-eta jokuan: tantaka-tantaka hiltzen diran gaztiak, soluziñuaren zain. Informaziño gehixagorako infodmo@osakidetza.net jo zeinke eta baitta Gipuzkuako Trasplantieta Koordinaziñora deittuta (943 00 70 00).

Duchen-ne distrofiaren kontrako borrokia

Azpeitian bizi dira, baiña mundu osoko tokitetan izan da Santos Gomezen famelixia. 21 urterekin, badira 11 Duchenne izeneko distrofia diagnostikatu zetsela. Ordu-

bere famelixak "lurra eta zerua" astindu dit-tu soluziño onenaren billa, beti be "bizitza kalidadia hobetzeko, badakigu-eta gaixotasunak konponketarik ez dakala", diño Sergio bere aittak. Eibar Football Taldia omenaldixa egin zetsan eta Aitta Santuak berak be hartu eban azpeittarra. Famelixan, gaiñera, ez da bakarra gaitz horrek, "Lautaro zortzi urteko anai-xak be gaixotasun hori dakalako". Iaz kanpaiña egin zeben arlo horretan aurreratuen dagan Txinan operaziñua egituko, baiña "jendia-

ren eskuzabaltasuna eredugarria izan bada be, ez genduan lortu diru hori guztia batzia". Dana dala, gurasuen jaioterrian, Argentinan, lortu dabe aurrera egittia: "Buenos Airesen izan dabe tratamendua anai bixak, ama zelulekin, eta dana doia ondo. Hillero kontrolak egitten detsez eta, gurgildun aukixan jarraitu bihar badabe be, hobetzen doiaz". Euskal Herrixan jasotako laguntasun guztiari "modu batian erantzuteko" gaixotasun arraruak dakenei laguntzeko 'Solidarida y Esperanza' alkartia sortu dabe eta baitta lan horretan burubelarri jardun be: "Hiru hillabetetan hiru toneladatik gora jaso doguz plastikozko tapoietan".



Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA 30€


Hanka osoak + Izterondoak 90€

Masajeak

- Osteopatia
- Teknika metamorfikoak
- Masaje terapeutikoak
- Reflexologia
- Masajeak: Thai, Kaliforniarra, Balikoa



BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO
MANIKURA



- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)

Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrequentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko **BONOAK** / Zona bat: 35 euro saioa



Aurpegi tratamenduak


Robotak egiteko oporrek aprobetxatzen

Zientzia eta teknologiaren munduan murgildu nahi duten gazteek horretarako aukera bikaina izango dute, udalak antolatu duen robotikaren inguruko udaleko teknologikoari esker. DBH-ko 1. mailatik 4. mailara bitarteko eta batxilergoko ikasleentzat bereziki prestatu duten udaleko teknologikoan. Antolatzaileen berbetan, "parte hartzen dutenek, Lego Mindstroms EV3 plataforma erabilia robotak diseina-



tzen, eraikitzen eta programatzen ikasiko dute. Gainera, nerabeek euren adimena eta gaitasunak garatzen dituzten bitartean, ederto pasatuko dute".

Gazteak udako oporretan daudela aprobetxatuta antolatu dute udalekoa eta sanjuan igaro eta gero, ekainaren 29an hasi eta uztailearen 3an amaituko da. Goizez, 09.00etatik 13.00era garatuko dute, Umeen Juan San Martin liburutegian eta ikastaroa Doplay enpresako irakasleek emango dute. Udalekuaren prezioa 45 eurotakoa da Eibarren erroldatutakoentzat eta 75 eurotakoa, beste guztiarentzat. Eskaerak Pegoran aurkeztu behar dira, ekainaren 9ra arte. Udalekura-ko eskaera orria aurkeztu beharreko agirien eta bestelako- en inguruko informazio guztia



udalaren webgunean, eibar.eus helbidean eskuratu daitezke.

Camp Tecnológico, Armeria Eskolan

Udalak antolatutako udalekukit kanpora ere, teknologian trebatu nahi duten gazteentzat eskaintza zabalagoa izango dugu uda honetan. Izan ere, Armeria Eskolak eta gazteen artean zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematikari buruzko interesa piztea helburutzat duen Camp Tecnológico heziketa-proiektuak uztaile-ko kanpamentu teknologikoak antolatu dituzte, 7 eta 17 urte bitarteko ume eta gazteentzako. Asmoa, "udako oporretan aisialdirako jarduera alternati- boekin gozatzeko aukera ema-

tea da eta, jakina, ondo pasatzen duten bitartean arlo teknologiko desberdinetan trebatzen joatea" dela diote. "Animatronics (ANI)", "Elektronikara sarbidea eta Arduino-programazioa (ARI)" eta "Girls&Tech (GT1)" tailerrak Armeria Eskolan emango dituzte, 09.00-etatik 14.00etara eta bakoitzari buruzko informazio zehatza www.camptecnologico.com helbidean aurkituko duzue.

Ikastaro teknologikoen arduradunek azaldu dutenez, "parte hartzera animatzen diren gazteek, astebetean edo pare batean, etorkizun profesional handia duten elektronika edo IKT moduko esparruetan sormena askatuko dute, proiektu zientifiko-tekniko txikiak garatzen dituzten bitartean".



Jai kontrartistikoa gaztetxean

Eibarko Gazte Asanblada Barrixak jai kontrartistikoa antolatu du datorren asteko barixakurako, ekainaren 12rako, 22.00etan Eibarko gaztetxean. Deialdia Facebook bitartez zabaldu dute eta parte hartzera animatzen diren artistei baldintza gutxi ipini dizkiete antolatzaileek: "10 minutu eszenatoki gainean, serio-tasunik ez!". Deialdiarekin batera ekimenari buruzko trailerra partekatu dute. Ikusi nahi duenak Youtube kanalean, youtu.be/EuLGFtGVT0g helbidean aurkituko du.

ARABA EUSKARAZ

GASTEIZ - 2015

SAN BIZENTE

EKAINAK 14

autobus

Arratsaldeko
19.00etan
BUELTA

10€

Goizeko
09.30etan
IRTEERA

zerbitzua

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA & ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

Alemaniko COSMOPOLITAN MAGAZINE-eko maiatzeko alean Edurne Askasibar eibartarrak egindako ile-orratz edo pasadore baten argazkia argitaratu dute. Aldizkari horretako "beauty-reporterrak" urrezko gantxoan bila zebiltzan, eta BITXIBITXI online-dendan Edurnek zituen gauzak ikusi zituztenean, berehala jarri ziren berarekin harremanetan.

Edurne Askasibar Olarreaga auzokoa da, ur-jauzia dagoen etxekoa. Ermua eta Eibar artean jaio eta ibili bada ere, eibartarra sentitzen da: ikasketak Iturburun eta I. Zuloaga Institutoan egin zituen eta lagunartean ere Eibarren ibili da beti. Orain dela 9 urte Elgoibarren bizi da.

EDURNE ASKASIBAR (Bitxibitxi):

"Gehienbat latoizko piezak erabiltzen ditut nire bitxiak sortzeko"

- Zer nolako lanak egiten dituzu eta nola sortu zenuen interneten Bitxibitxi denda?

Bitxigintza industrialia egiten dut, metalezko gauza asko erabiltzen ditut, baita latoia ere. Eskulanak egiten urte mordoan egin naiz Bidebarrieta kaleko "El taller de manualidades"-en. Azken aldiaren modan jarri da "Do it yourself"; niretzako eta inguruko jendearentzako bitxiak egiten hasi nintzen eta, hango andereñoak animatuta, bitxigintzari denbora gehiago dedikatzen hasi nintzen. Interneten "dawanda" plataforma aurkitu nuen eta bertan Bitxibitxi online-denda martxan jarri nuen. Plataforma alemaniarra da eta orain hasi dira Europara zabaltzen. Nik hiru denda ditut plataforma horretan; alemaneraz, ingelesez eta erderaz. Hemen ez, baina Alemanian oso ezaguna da.

- Nola jarri ziren Cosmopolitanekoak zurekin harremanetan?

Harreman gutzia online izan da. Mezu bat bidali zidaten dendara. Urre koloreko ile-orratza nahi zuten. Egun gutxi izan nituen: asteburu horretan 4 edo 5 proba prestatu, nire iloba eta euren lagunekin argazkiak atera, eta bidali egin nituen. Maiatzeko alean



Goiko argazkian emakume bat, Edurnek diseinatutako gantxoarekin, Cosmopolitan-eko moda-atala irakurtzen. Orrialde horretan ikus daitezke Edurnek sortutako urre koloreko ile-orratza. Eskuinean, Cosmopolitan-eko maiatzeko azala.



Edurneren bitxiak sarean aurki daitezke: <http://es.dawanda.com/shop/BITXIBITXI> <https://www.facebook.com/bitxibitxi?fref=ts>

argitaratu zuten argazkia, Bitxibitxi izena eta kontaktoarekin batera. Zorte handia izan dut. Harremana alemaneraz izan da; orain dela urte asko Berlinen hilabete batzuk egon nintzen ikasten eta ez dugu elkar-ulerretzeko arazorik izan. Harreman berezia daukat Alemaniarekin, Berlin zoragarria da. Nire lehenengo belarritakoak Berlineko neska batek erosi zituen. Plataforma honetan saldu dudana guztia Alemanian izan da. Hemen,

gehienbat, eskaparate moduan balio dit dendak: inguruko jendeak hor ikusten ditut nire bitxiak, eta gero nik euren gustora egiten ditut gauzak. Facebook-en ere nire gauzak ikus daitezke.

- Nola deskribatuko zenuke zure online-dendan aurki daitezkeena?

Eskuz egindako bitxiak daude, eta gehienbat latoizko piezak erabiltzen ditut bitxi berezi horiek sortzeko. Sormen proiektua luzea izaten da: lehenik eta behin ingurunea ikustatu, inspirazioa deitzen den klik berezi hori sentitu arte; gero pentsatu, sortu, gauzatu eta azkenik nire parte txiki bat daraman bitxia sortu: eraztunak, pultserak, giltzatak, gerrikoak, lepokoak, belarritakoak, ile apaingarriak, brotxeak, zorroak... Hauek sortzeko teknika eta material desberdinak erabiltzen ditut: haria, nilona, alambrea, kobrea, alpaka, soka ezberdinak, goma, belkroa... Estiloari dagokionez, retroa dela esango nuke. Batzuk chic bezala ere definitu dute, eta beste batzuk Glamrock bezala (rockeroa baina glamourduna). Argi dagoena da oso erabilgarria dela.

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737
 Etorri!
 Zure etxian
 egongo zara!!
 Astelehenetik
 ostegunera
PIINTXO-POTEA!
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTLINDO

C & J
CERRAJEROS
G
 www.CerrajeroGipuzkoa.com
 Tel. 943 107 770
 Juan Gisasola, 4
 EIBAR
 Tel. 943 132 314
 Araba, 27
 ZARAUTZ

LOCKSMITH
 CERRAJERO DE SEGURIDAD
UCES
 Homologatutako enpresa
 1502 zkia.

Jaixaren ERDIXA

...n geurian Euskal Jaixa aurreko asteburuan. ...rasuendako antolatutako Kalian Jolasian eki- ...al Jaixak 50 urte bete dittuala eta, aurtengo ...eta barixaku illuntzian mende erdixa ospa- ...a, Espaloian, Hesian eta eMePebo5t taldiak. ...o Etxebarria kalia bete eban artisaue eta ba- ...parriz, Untzagan jendetza batzia lortu eban ...gunari agur esateko karpan kantu-afarixa eta ...an egun berezixa izan zan, Euskal Jaixaren ...antzarixak Untzagan alkartzia lortu eban eta. ...rietan jo ez daben asko txistua atzera be har- ...metatik dantzari egiten ez eben asko edar- ...Eta holan, Euskal Jaixak gitxienez beste 50 ...ngo ediziñua.



Rifetako zenbakixak

Aurreko domekan 50. Eibarko Euskal Jaixaren inguruan egindako zozketan h6nek izan ziran zenbaki sarituak: 1. sarixa (neska eta mutil-llarendako euskal jantzixak + kua-droa): 3894 (ordezkua, 9425); 2. sa-rixia (argazki makiña): 3571 (ordez-kuia, 9245); 3. sarixa (2 lagunenda-ko afarixa): 3071 (ordezkua, 8345). Lehelengo sarixa Estaziño kaleko Ketesan saldu zan, bigarrena Abadiño-ko Institutuan eta hirugarrena Urkizuko Bako ardandegixan. Irabazliak 15 egunetan ez badira agertzen, ordezkio zenbakixak sar-tuko dira indarrarian.



...eta kitted! 15/VI/5 • 933 zkia

Txapeldun bi eta txapeldunordea Eibar Eskubaloian

Gipuzkoako Kopako azken jardunaldia jokatu, Eibar Eskubaloiko ordezkari bik txapela eskuratu dute eta beste hirugarren bat azpitxapeldun geratu da. Haritza gizonetzkoen senior bigarren taldeak aurreko jardunaldian Lurraldeko 1. mailako txapela bereganatu zuen eta partidu guztiak irabazita amaitu du torneoak: azkenean 32-20 nagusitu zitzaion Legazpiko Zuautekati-luri. Eibar Eskubaloia B taldeko infantil mutilek, bestalde, 25-21 irabazi zioten Ereintzari eta Foru Aldundiko txapela jantzi zuten, bigarrenari bost puntu kenduta. IK4-Tekniker jubentilek, azkenik, Zarauzko



taldeari 25-19 irabazi bazioten ere, txapeldunorde geratu ziren, joaneokan aurkariek gol gehiagoren alde atera baitzuten.




Finalista Eguna ospatuko du Deporrek domekan Arraten

Urtero lez, Eibarko Klub Deportiboak bere eguna ospatuko du ekainaren lehen domekan, hainbat ekitaldirekin. Bezperan, dena dela, bi urtetik behin mendi batzordeak antolatzen duen Eibarko Itzulia egingo dute. Klubaren eguneko programazioa honakoa izango da: 08.15etan, mendi-ibilaldia Deporetik abiatuta, Santa Kurutz, Kalamuako Parlamentua eta Kalamuatik pasatuta Arratera heltzeko. 09.00etan haur eta gurasoentzako ibilaldia hasiko da Ego-Gainen; hor autobusa hartu (doan) eta Ixuaraino joango dira, ja-

rraian Kalamuatik, Akondiatik eta Aizketatik pasatzeko Arratera iritsi aurretik. Eta 09.30etan roll-eski igoera egingo da, Itzioko parketik abiatuta. Egurdiko 12.00etan Caoloren omenezko pilota-partiduak jokatu dira Arrateko frontoian. Handik ordu erdira Kezka Dantza Taldearen dantzen ordua izango da eta, jarraian, mendiko dominak banatuko dira. Bazkaldu aurretik, bestalde, salda eta txorizoa banatuko dira Kantabria jatetxean. Bazkaria Arrateko zelaian egingo da: hori bai, janaria norberak eraman behar du.

Deltecoko guztiek amaitu zuten Bilboko Half-Ironmana

Eta ez dute meritu makala, triatloi luzeko proba hori benetan delako gogorra: bi kilometro igerian, 95 kilometro bizikletan eta beste 21 km. arinetan egin behar izan zuten atletek ibilbidea osatzeko. Pello Osoro onena izan zen 23 urtetik azpikoen artean eta 13.a sailkapen orokorrean eta Ane Ziaran 12.a emakumezkoetan. Delteco Eibar Triatloi Taldeko beste ordezkariak honela amaitu zuten: Igor Atxa (53.a), Xabier Arrieta (182), Juanjo Romero (202), Javier Murcia (217), Iñigo Villaba (218), Oscar Castrillo (263), Iñaki Serrano (329) eta Ibon Romero (402). Igor Etxeberria eta Adur Juaristi, bestalde, Salouko Half-Ironmanean hartu zuten parte.



Iñigo Villaba, Ane Ziaran eta Javi Murcia batera helmugaratu ziren, nekatuta baina pozik.

Umeendako igeriketa ikastaroak irailerako

Astelehenean zabaldu zuen Eibarko Kirol Patronatoak umeendako igeriketa ikastaroetan parte hartzeko aurreinskripzioa eta hilaren 19ra arte egongo da zabalik. Umeek ahatea, dordoka, olagarroa, itxas-zaldia, igela, izurdea eta marrazo mailatan eman dezakete izena Ipuruan, Orbean edo www.eibarkirola.com orrian. Hilaren 22an zozketa egingo da goizeko 10.00etan eta jakinaraziko arratsaldeko 18.00etan. Ondoren, izen-emateak ahal izango dira Ipuruako idazkaritzan maila agiriarekin, ahate maila izan ezik.



Bihar agurtuko dute foball-zaletu denboraldia

Ohikoa denez, Kopako finalarekin amaituko da foball-zaletu denboraldia. Final horrek Txoko eta Esmorgaren arteko lehia izango du, goizeko 10.00etan hasita eta, jarraian, 13.00ak bueltan, Kirolbet torneooko Ligako eta Kopako sariak banatuko dira. Asteburuan jokatutako finalerdietan, Txokok eta Oishik bana berdindu zuten, gero 10. penaltian Oishik kale egin eta Txoko sailkatzeko, eta Esmorgak 2-0 irabazi zion azken aldian gora egin duen Ipur Sagardotegiari.



Roke Etxeberria
eta Jon Osa.

Ion Osa Euskadiko txapeldun

Donostiako Altzan jokaturako Euskadiko 34. Eskolarteko kirol jokoetan Urbat taldeko lau ordezkari izan ziren (Ion Osa, Inge Erkiaga, June Gomez eta Roke Etxeberria) eta Osak Euskadiko txapela jantzi zuen 1.500 metro libreko proban, txapela kentzeko moduko marka eginda. Atsedetik hartu gabe, asteburuan benjamin eta alebin mailako igerilariek Oñatin amaituko dute denboraldia eta, bestalde, Urbateko hiru master (Jon Ugarteburu, Yago Ron eta Iñigo Laskurain) Girona aldera joango dira zazpi kilometro inguru dituen igeriketa zeharkaldia egitera.

Eibar FT-k bulegoetan aurkitu dezake argia

Kirol lehiaren epaiak Eibar FT 2. mailara jaiste aurreratu bazuere, bulegoetan zirrikitua zabaldu zaio taldeari 1. mailan jarraitzeko. Ale hau inprentara bidaltzerakoan LFPko epaileak oraindik ez zuen jakinarazi Elx 2. mailara jaitsiaraziko zuen eta haren tokia Eibarrek beteko duen, baina zurrurruiek hori zioten. Elkek Ogasunari eta jokalariei zor die dirua eta, auziaren instruktoreak dioenez, ez dago bermerik Elkek zorra ordainduko duenik. Iaz antzeko motibogengatik jaitsiarazi zuten Murtzia 2. A mailatik 2. B mailara.

15 herritar Leitzako Ultra-n

Aurreko zapatuan Leitzan jokaturako Euskal Herriko Mendi Eronka Ultra Trailean Kalamua Korrikalari Taldeko 15 eibartar izan ziren parte hartzen. Mendiz-mendi egin beharreko 65 kilometroko ibilbidea bete ondoren, Eibartik joandako guztiak iritsi ziren helmugara.



Jaialdi interesgarria Astelenan

Maila handiko pilotariak hartuko ditu domekako jaialdiak Astelenan. Partidu nagusian Ezkurdia-Barriola eta Altuna III.a-Rezusta bikoteek neurtuko dituzte indarrak; pilotari bat kenduta, orain dela bi aste Bergaran lan ikusgarria egin zuen laukotea dugu. Aurretik, eta jaialdia hasiteko, Aritz Lasa eta Tolosa izango dira, nor baino nor, Jaunarena eta Merinoren aurka lehian. Eta, amaitzeko, Gorka-Urruzola bikoteak Mendizabal III.ak eta Larrinagak osatutakoari egingo dio aurre.



Afizionatuen mailako partiduak

Bestalde, Klub Deportiboko ordezkariak Udaberri Torneoaren azken txanpan dihardute eta asteburu honetan Zumaian izango dituzte partiduak. Urkiko jaietan, aurreko zapatuan Amuategi-Arrieta bikotea Zabala-Acuña baino gehiago izan zen eta Simonek Sanchezzi irabazion alebinetan. Domeka eguerdian Arraten izango dira Deportiboko pilotariak Caelo Memorialaren edizio berrian.

Kalamuakoak Gipuzkoako onenak alebinetan

Markel Azpeitiak, Maren Martinek, Gaiska Merinok, Asier Nuñezek eta Unai Soralezek osatutako taldeak Zarauzko La Salleri, Judo C. Legazpiari, Zarauzko J.C. Lizardiri, Donostiako J.C.-ri eta, finalean, Irungo Judo Klubari irabazita jantzi zuen txapela. Garaipen argiak lortu zituzten Eibarko alebinek, norgehiagoka guztietan 4-1 gailenduta. Epaile lanetan jardun zuten Julio Gallego eta Manu Agirre klubeko teknikariak ere izan zituzten lagun. Bestalde, Kalamuako teknikaria Madrilen izango da asteburuan judoko 8. dan titulua ateratzeko (Gipuzkoan ez dago maila hori duen entrenatzailerik).



Izagirre ondo Nafarroako Itzulian

Debarrenen txirrindulariak Beasainen eskuratutako bosgarren postua ez zela kasualitatea izan erakutsi zuen berriro Iruñean eta, proba gogor horretan, 15. postuan amaitu zuen Eibarko taldeko onena izateko. Bihar Debarrenen ordezkariak Igantziko lasterketa jokatu dute.

Aitor Hernandez, batu eta segi

Specialized-Ermuako txirrindulariak bigarren garaipena lortu du, oraingoan Jaurrietan, BTTko Caja Rural Kopako proban. Gogortasunarekin bat eginez, arlo teknikoa ere lantzea eskatzen duen proban ermutarra nagusi izan zen hasieratik amaierara.



**JOSU MUJIKA (koreografoa):
"Ikasleak autonomo
ikusteak pozten nau"**

Gaur iluntzean Biraka Dantzan-ek hirugarrenez jardungo du Coliseokoan, eskolako ikasleen kurtso amaierako emankizunak aurkezten. Eskolako sortzaile eta arduraduna den Josu Mujika dantzari eta koreografoak azaldu dizkigu horien inguruko gorabeherak eta, bide batez, esku artean dauzkan beste proiektuen inguruan berba egin digu.

- Zenbat ikasle dauzka Biraka Dantzan-ek?

Gaur egun 220 bat ikasle daude. Gazteenak lau urteko umeak dira eta, hortik aurrera, gorputza erritmoari jarraitzeko gauza den bitartean, adin guztietako ikasleak dabilta. Urtero talde berriak sortzen dira eta oso jende gutxi lagatzen ditu klaseak. Gure helburua formakuntza izanik ere, eskolara etortzen direnak ondo pasatzen dute eta hori oso pozgarria da. Txikitik hasi arren, 18 bat urterekin lortzen da dantzarako gaitasuna, orduan disfrutatzen dute gehien, koreografiak sortzen hasten dira eta, autonomoak direla ikusita, ni ere asko pozten naiz.

- Gaur ikasturte amaierako hirugarren saioa eskainiko duzue, nola prestatzen dituzue?

Urterik urtera dantza guztiak aldatu egiten dira, urtero dantza berriak prestatu behar izaten ditugu talde guztiekin. Aurtengo hiru emankizun egin ditugu, baina datorren urterako laugarren bat eskainiko dugu, ikustera joan nahi duten guztientzat sarrerak egoteko...

- Beste proiektu batzuetan ere badiharduzu, tartean abenduan Elgoibarren egingo den dantza prestatzen...

Iaz Untzagan egindako Euskeraren Azokaren harira "Euskaraz bizi nahi dut" abestiarekin koreografia prestatu genuen eta, jendeak oso ondo hartu zuela ikusita, Elgoibarren antzerako zerbaite prestatzen nabil. Euskararen Egunerako lipduba lantzen hasi gara. Herriko elkarte gehienek parte hartzea nahi dutela kontuan izanda, horrelakoetan pauso errazak erabili behar dira, asmo nagusia jendeak jai giroan dantzatzea delako. Domekan egingo den Euskal Eskola Publikoaren Jairako ere 350 umeen parte-hartzearekin eskainiko den oso dantza polita prestatu dugu.

- Eta zertan da '4milpasos' delakoa?

Hori beste mundu bat da, Dantzas konpainiako dantzari gazte eta profesionalarekin batera Wikok eta Eibar kirol elkarteak eskatuta landu dugun ikuskizuna da, oso atletikoa eta dantzariei ahalegin handia eskatzen diena. Foballaren inguruko koreografiak sortu ditugu, baina jendeak foballetik ezagutzen duenetik aldentzen ahalegindu gara. Era berean, ulergarria eta erakargarria izatea bilatu dugu. Ekainaren 27an Coliseoan aurkeztuko dugu, emanaldi bitan eta datorren astetik aurrera sarrerak 4 eurotan salgai egongo dira.



Sostoa abesbatza Kantabrian

Aurreko asteburuan, zapatuan Kantabrian abestu zuen Sostoa abesbatzak, Ribamontán del Mar herriko udal antzokiak hartu zuen "La Música en el Camino del Norte" izenburuko ekitaldian. Eibarko abesbatzak gustora erantzun zion saio horretan kantatzeko gonbidapenari eta Ribamontán del Mar-eko udal abesbatzarekin, Cudillero (Asturias) Peña Roballera abesbatzarekin eta Kantabriako Landa Etxeen Erronda abesbatzarekin batera jardun zuen kantuan.



Larregi eta Zain Belek

Gaur 22.30etatik aurrera Larregi taldeak kontzertua emango du Beleko tabernan, Zain taldearekin batera. Lemoan 2009ko abenduan sortu zen Larregi, lehen urratsak hirukote moduan eman zituen eta handik gutxira kaleratu zuten sei abestiko maketak Gaztea irrati emisorak antolatzen duen lehiaketako "Entzuleen Saria" eman zien eta hortik aurrera ate eta bide berriak zabaltzen joan zitzaizkien. Gaur egun Iñigo (baxua eta koruak), Unai (gitarra eta ahots nagusia), Jokin (gitarra eta koruak) eta Markelek (bateria) osatzen dute Larregi eta, dena ondo bidean, 2015ean estu-dioko hurrengo lana kaleratuko du taldeak.



Azalari buruzko saioa

Eguaztenean Zalao Otaduyk ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik eman zuen "Nola zaindu azala udan?" hitzaldira joandakoei interes handiarekin jarraitu zituzten azalari buruz emandako azalpen eta aholkuak. Besteak beste, eguzkitik babesteko krema-mota desberdinei buruz, horiek emateko modu egokiaz eta beste kontu interesgarri batzuetaz jardun zuen berbetan Otaduyk eta amaieran krema-muestrak oparitu zituzten entzutera joandako guztiei.

Ikasturte amaierako kantu-kalejira

Udako oporrak hasi aurretik, bihar ikasturteko azken kantu-kalejira egingo dute Kaleetan Kantuz abesbatzak eta Musika Eskolako trikitilariak. Kaleetan Kantuz abesbatzak 2007an ekin zion kaleak kantuz alaitzeari eta taldean adin guztietako jendea dago. Nagusienak 90 urte ditu eta, berak dioenez, "kantatzeko eta disfrutatze gogoa izanez gero, adina ez da aitzakia izan behar". Biharkoa egun berezia izango denez, Eibarko taldearekin batera



Otxandio, Arretxabaleta eta Arrasateko taldeetako kideak ere ibiliko dira herriko kaleetan abesten. Eguneko egitarauari 11.30etan ekingo diote, Untzagan ogitartekoa janda. Ordu erdi geroago, 12.00etan jarduneko alkateak agurra egingo die eta jarraian kalejiran irtengo dira denak elkarrekin, Musika Eskolako trikitilariak lagunduta. Unzaga Plaza hotelean elkarrekin bazkalduta agurtuko dute eguna.

Euskal dantzetarako matrikulazioa

Datorren ikasturtean (2015/2016) Kezka Dantza Taldean euskal dantzak ikasi nahi dutenentzat matrikulatze epea datorren ekainaren 18an (egunean) zabalduko dute. Ikasle berriek egun




horretan izango dute izena emateko aukera, 19.00etatik 20.00etara Portaleko 3. solairuan. Kezka Dantza Taldekoek aditzera eman dutenez, izena eman ahal izateko sei urtetik gora izatea eskatzen dute.

laburrak

UDA EUSKALTEGIAN

Udaleko euskera batzordeak aditzera eman duenez, udako ikastaroak emango dituzte Udal Euskaltegian, 16 urtetik gorakoentzat (1., 2. eta 3. maila, B1, B2 eta C1 edo EGA azterketak prestatzeko ikastaroak). Klaseak ekainaren 29tik uztailaren 24ra (4 ordu goizez) eta irailaren 9tik 22ra (2 ordu arratsaldez) izango dira eta matrikula hilaren 19ra arte egin daiteke.



UEU-KO IKASLEEI LAGUNTZAK

Udalak 2014ko irailaren 1etik 2015eko uztailaren 31 bitartean UEU-k eskainitako ikastaroetan parte hartzen dutenen eibartarrentzat diru-laguntza deialdia kaleratu du. Eskaerak Pegoran egin beharko dira, irailaren 30a baino lehen eta baldintza guztiak betetzen dituztenei matrikularen erdia ordainduko diete.

ESKERRIK ASKO !



eibarko lehendakari

BATZARRA:
Ekainaren 9an,
19:00etan, Kultun



Informazioa 676 534 106

100 metroko
TATAMIA

EGOKIA
yoga, pilates,
arte martzialak
eta abarrerako

alokatzen da
orduka
Elgoibarren

Berbetanekoak ederto Beran

Aurreko asteburuan Beran ospatu zen Mintza Eguna-ren harira 100 bat lagun elkartu ziren. Eibartik ... eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan egitasmoko 15 laguneko taldea animatu zen jaiarekin bat egitera. Euskal Herri osoko mintzalagunak urtean behin batzeko asmoarekin antolatutako jaialdiak hamargarren edizioa bete du aurten eta, betiko lez, joandako guztiak egun-pasa ederra egiteko moduko egitaraua prestatu zuten. Besteak beste, Bera eza-gutu nahi zutenentzat ibilbide kultural bi prestatu zituzten eta eibartarren erdiak horietako batean parte hartu eta "ondo baino hobeto ibili zirela" kontatu digute. Gainera, bisitaren aitzakiarekin gehienek gazta eta sagardoa erosi zituztela jakin dugu. Bazkalostean,



Eibarko taldeko Kontxa Laspiurrek beteranoen saria jaso zuen.

berriz, urteetan mintzalagun programetan parte hartzen ari direnei errekonozimendua egin zieten eta Kontxa Laspiur eibartarrak beteranoen saria, hango elkarte baten produktu ekologikoekin betetako saski ederra jaso zuen.



Musika Eskolako taldeen emanaldia

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Blue Day eta Face To Eye taldeek kontzertua emango dute datorren eguaztenez Txalxta Zelaiko musika kioskoan, 18.00etatik aurrera.



Urrezko domina Palaciosentzat

Reusen, Europa 2015 nazioarteko lehiaketan FIAP-en Urrezko Domina eskuratu du Juan Antonio Palacios argazkilariak, "Fronton" izenburuko lanari esker.



Ekaineko argazki erakusketak

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatuta, ekainaren 30era arte Virginia Arakistainen "Venezia" argazki erakusketa egongo da ikusgai Ambigu tabernan; Klub Deportiboaren tabernan, berriz, Ripolleteko "Accio Fotográfica" taldekoen argazkiak ikusteko aukera izango da; eta Portalea tabernan Fernando Retolazaren Nepalgo argazkiak ikusgai ez ezik salgai ipini dituzte, horiek salduta batzen duten dirua Nepalgo lurrikarak kaltetu dituenei laguntzeko asmoz.




Egiptoko argazki bilduma Logroñon

Santiago Entrena bildumagile eibartarrak, Manuel Abeledorekin batera "Pioneros de la fotografía en Egipto (1857-1890)" izenburuko erakusketa zabaldu du Logroñoko Museoa. Ekainaren 28ra arte ikusgai egongo den erakusketan artisauren erara egindako 75 argazki ipini dituzte ikusgai. XIX. mendeko Egiptoko argazki kamararekin harrapatu zituzten argazkilari haien artean, Maxime Du Camp, Francis Frith, Antonio Beato, George eta Constantine Zangaki, Felix Bonfils, Abdullah Freres eta beste hainbat daude. Erakusketara sartzea doan da. Ikusi nahi duenak martitzenetik zapatara bitartean 10.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 21.00etara izango du horretarako aukera eta domeka eta jai egunetan, berriz, 10.00etatik 14.00etara. Bestalde, erakusle biek bisita gidatu bana eskainiko dute, Manuel Abeledok ekainaren 20an eta Santiago Entrenak ekainaren 27an, biak 12.00etan hasita.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARKO, gure etxeko txikixak atzo lau urte bete zittuan-eta. Muxu potolua etxekuen partez.



Zorionak, MADDI, domekan bost urte beteko dozuz-eta. Besarkada haundi bat etxeko printzesari, famelixaren partez.



Zorionak, INES De Miguel Formoso, atzo zortzi urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JONTXU!, martitzenian hiru urte bete zenduazelako. Muxu asko Ane, amama, amatxo eta aitaxoren partez.




Zorionak, IZARO!, gaur lau urte egitten dozuz-eta. Iruñian, Durangon eta Eibarren etxeko printzesa zara. Asko maitte zaittugu.



Zorionak, IZARO, printzesa! Gaur zazpi urte egitten dozuz-eta. Asko maitte zaittugun aitxita-amama eta osaba-izeben partez.



Zorionak, LIBE, zure 10. urtebetetzian!! Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IBAI, bixar bi urtetxo beteko dozuz-eta. Patxo haundixa etxekuen partez.



Zorionak, DARIO, bixar bi urtetxo beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LUKENI!, aurreko zapatuan urtetxua egin zenduan-eta. Muxu asko aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, UNAX, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu potolua famelixaren partez.



Zorionak, KATRIN, haraifegun sei urte egin zenduazleka. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, JOSE MARI Lopez Lamas, atzo urtiak egin zenduazena-eta. Muxu bat ama, Juliana eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OIER Miguel Carabantes, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu! Etxekuen partez.



Zorionak, MAITANE, gaur bi urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LAIDA, gure pitxintxo, domekan urte bi egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MARTXEL! Eguaztenian lau urte egin zenduazena, mutil haundi! Patxo pilla bat, maittia!



Zorionak, MARKEL Simon Yeregi, atzo 11 urte bete zenduazena-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LEIRE, domekan zazpi urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANDER, txapeldun, gaur urtiak egitten dozuz-eta. Etxekuen partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
6an: 19.45, 22.30
7an: 20.00
8an: 20.30

"La familia Béliet"
 Zuzendaria: Eric Lartigau



(2 ARETOAN)
6an: 19.45, 22.30
7an: 20.00
8an: 20.30

"Nuestro último..."
 Zuzendaria: A. Hamilton




(ANTZOKIAN)
6an: 19.45, 22.30
7an: 20.00
8an: 20.30

"Poltergeist"
 Zuzendaria: Gil Kenan



Zorionak, TXANAN, hillaen 12xan urtiak egingo dozuzelako. Sukaldari, jarraitu topera! Famelixaren partez.



Zorionak, MIREN (hillaen 11n 17 urte egingo dozuz) eta JOKIN (astelehenian 12 beteko dozuz). Jarraitu jatorrak eta dantzariak izaten. Etxeko guztion patxuak.



Zorionak, MAITE, juan zan astian urtia bete zenduan-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Juliaren partez.

BARIXAKUA 5

GAZTELEKUA

16.30. Disparatea. Indianokuan.

DEBABARRENA EKINEAN

18.00/19.30. "Ekiteko motibazioa" hitzaldia, Roberto Lopez Etxeberria diseinatzailearen eskutik. Udaletxean. "Etorkizuneko tresna eraikitze bidean" umeendako tailerra Untzagan (karpan).

BILERA

18.30. Sanjuanak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

GURE ESKU DAGO

19.00/20.00. "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalak eta gainerako salmenta. Deporren parean.

URKIKO JAIK

19.00. Hasiera. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
19.10. Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.
19.30. Umeendako herri-jokoak. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
19.30. Auzoko nagusiei omenaldia. Ceba taberna parean.
20.00. Ustekabe eta Irulitxa fanfarreek girotutako txikiteoa.
23.00. Mariatxia. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

DANTZA

20.00. "Juke Box-Zure Aukera!" ikuskizuna, Biraka Dantzaren eskutik (3 euro). Coliseoan.

KONTZERTUA

22.30. Larregi eta Zain taldeak. Beleko tabernan.

ZAPATUA 6

EIBARKO ITZULIA

07.00. 19. edizioa, Klub Deportiboko Mendi Taldeak antolatuta. Irteera Klub Deportibo paretik.

EUSKARAZ BIZI

08.00. Iturburura autobus zebitzuaren hasiera (Ego-Gainetik eta Urkizutik). Egun osoan kirol probak, musika... Iturburun.

DEBABARRENA EKINEAN

11.00/12.00. Ekintzaileen arteko eztabaida: "Nola mantendu ilusioa nire enpresa sendotzeko".
17.00/21.00. Ekintzaileen arteko networking saioa. Untzagan (karpan).

URKIKO JAIK

11.00. IV. Txiki Krosa. Urki-Kurutzekuan.
11.30. Diana, trikitilari eskolako eskutik. Urkiko kaleetan.
12.00/14.00. Umeendako jolasgunea. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
12.30. Salda eta txorizoa banatzea, trikitilariak girotuta. Ceba eta Vila tabernen arkupeetan.
16.30/18.30. Umeendako jolasgunea. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
17.00. XIV. Toka eta Igel-toka txapelketa. P. Etxebarria kalean (Rioja tabernaren aldamenean).
19.00. Cava eta Otarrainxka jaia, Tarumba Percusion taldeak girotua.
21.45. Herri-afaria. Arrateko A. M. ikastetxean.
23.30. Berbena, Continente orkestraren eskutik. Arrateko A.M. ikastetxean.

GAZTELEKUA

17.00. Disparatea. Indianokuan.

IPUIN KONTALARIA

18.00. "Storytime farmyard" saioa, ingelesez (2-8 urteko umeendako). El Corte Ingleseko terrazan, euria egingo balu erakusketa aretoan.

POESIA EMANLDIA

21.00. Poesia eta musika gaua, Geltoki Elkartek antolatuta. Ibarkurutzeko iturrian.



DOMEKA 7

FINALISTA EGUNA

08.15. Mendi ibilaldia, Deportibotik abiatuta.
09.00. Ibilaldia haur eta gurasoentzako. Autobusa Ego-Gainetik doan.
09.30. Roll-ski igoera, Itzioko parketik.
12.00. Pilota partiduak, Caeloren omenez. Arrateko frontoian.
12.30. Dantza emanaldia, Kezkarekin, eta mendiko dominen banaketa. Salda eta txorizoa Kantabrian.
14.30. Bazkaria Arrateko zelaian.

URKIKO JAIK

09.30. Mendi-martxa, Atzegiren laguntzarekin. VII. Mendi Lasterketa.
11.00. Diana, Galiziako Etxeko gaita-joleen eskutik.
12.30. XVII. Paella Lehiaketa.
13.00. Meza, auzoko hildakoen alde. San Jose Obrero elizan.
14.00. Paella lehiaketaren epai-mahaiaren erabakia.
16.45. "Tarantella" umeendako ikuskizuna, Trapero antzerki taldearen eskutik. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
18.00. Txokolate jana. Arrateko A. M. ikastetxean.
18.00. Txapelketetako sari-banaketa ekitaldia. Arrateko A. M. ikastetxean.
18.30. Musika saioa, Agirreren eskutik. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
20.00. Jaian amaiera.

ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

11.00/20.00. "Gustatzen jata, jaku" Euskal Eskola Publikoaren 24. Jaia. Elgoibarren.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokuan.

MARTITZENA 9

ENERGIA AURRETZU

10.00/14.00 & 17.00/20.00. Energia aurrezteko aholkuak eta informazioa emateko mahaia. Udaletxeko arkupeetan.

BATZARRA

19.00. Eibarko EH-Bildurera. Arrate Kultur Elkartearen.

EGUAZTENA 10

BILERA

12.30. Txosnen kokapena adosteko. Udaletxean.

KONTZERTUA

18.00. Blue Day eta Face to Eye, J.B. Gisasola Musika Eskolako rock taldeak. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

DANTZA

20.00. Eibarko Dantza Garaikidea, umeen taldearen emanaldia (3 euro). Coliseoan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

DANBORRADA

19.00. Umeen entsegua.
20.00. Nagusien entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa kalean).

EGUENA 11

KALERATZEAK STOP

19.00. Plataformako bilera irekia. Portalean.

AMAÑAKO DANBORRADA

19.00. Umeen entsegua.
20.00. Nagusien entsegua. Amaña ikastetxean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

DANTZA

20.00. Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia (3 euro). Coliseoan.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Ekainaren 17ra arte**
ZERAMIKA ETA DIBUJO UDAL ESKOLETAKOEN ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Ekainaren 30era arte**
“ACCIO FOTOGRAFICA” (Ripollet) taldearen argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
VIRGINIA ARAKISTAINEN “Venezia” argazki erakusketa. *Ambigú tabernan.*
FERNANDO RETOLAZAREN “Nepal” argazki erakusketa eta salmenta. *Portalea tabernan.*

hildakoak

- Regina Garetxana Bilbao. 82 urte. 2015-V-29.
- Mariano Garcia Hoyos. 69 urte. 2015-V-31.
- Julian Palacin Cantero. 87 urte. 2015-V-31.
- Rafael Ajuriagerra Añibarro. 61 urte. 2015-VI-1.
- Alicia Rodriguez Terroba. 58 urte. 2015-VI-1.
- Ricardo Martin Hernandez. 67 urte. 2015-VI-1.
- Juan M^a Larrea Lopez. 86 urte. 2015-VI-1.
- Irene Marcano Gallastegi. 91 urte. 2015-VI-2.
- Isaac Otxandiano Mendizabal. 78 urte. 2015-VI-3.
- Vicente Garitagoitia Urbelarrea. 91 urte. 2015-VI-3.

jaiotakoak

- Lina Errahmouni. 2015-V-23.
- Maren Ibarzabal Ugarteburu. 2015-V-26.

SUDOKUA

1				2		7	4
		7					5 2
	9						
2			6 5		1	4	
	7		1	3		2	
	6 1		2 7				9
						1	
7	1				2		
8	2		3				6

farmaziak

- ✓ **barixakua 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **zapateria 6**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **domeka 7**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **astelehena 8**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoarren, 10)
- ✓ **martitzena 9**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguztena 10**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **eguztena 11**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **barixakua 12**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

**GAUEZ BETI -2015EAN-
Elorza (J. Gisasola, 18)**

lehiaketak

- ✓ **Tortila txapelketa**
Ekainaren 24an, 18.00etan, txosnagunean (Errebalen).
Izen-ematea eta informazioa: jaiakherrixakherrixandako@gmail.com eta Facebook bidez.
- ✓ **Maskota lehiaketa**
Uztailaren 4an, 11.30etan, El Corte Inglésko terrazan (3. solairuan).
Izen-ematea eta informazioa: Ekainaren 27ra arte, El Corte Ingleseko Bezero Arretan (1. solairuan).

5	8	3	1	9	2	6	4	7
4	1	6	3	8	7	5	2	9
9	2	7	6	5	4	8	3	1
2	7	4	5	6	9	1	8	3
6	3	1	7	4	8	2	9	5
8	5	9	2	1	3	4	7	6
7	9	5	4	2	1	3	6	8
1	4	8	9	3	6	7	5	2
3	6	2	8	7	5	9	1	4

AURREKOEN EMATZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 21.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 22.50etara ordu. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 22.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu eta 19.30etatik 22.50etara ordu.

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.50etara ordu eta 07.15, 08.00, 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.40 eta 20.40. Jaiegunak: 12.00 eta 20.00. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARRO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.55etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARRO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatuak eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 08.35, 11.35, 14.35, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 06.45, 09.45, 12.45, 15.45, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta trasteroa. Iggogailua. Jantzita. 5 horma armairurekin. Argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

- Landetako kanping batean mobilhomea alokatzen da: pisuzina klimatizatuak toboganekin, spa, tenis pista etb. Tel. 628-573783.
- Pisua behar da alokairuan Eibarren edo Sorraluzen. Gehienez 500 euro ordaintzeko hilean. Tel. 632-337083.
- Logela hartuko nuke alokairuan Eskoriatzan. Tel. 688-820508.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 632-331554 eta 602-120839.
- Pisua alokagai Mutiola kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Tel. 617-163382.
- Pisu handia alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 500 euro hilean. Tel. 648-643715.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Eibarko erdialdean. Tel. 688-678934.

3.2. Errentan

- Taberna traspasatzen da Eibar erdialdean. Martxan bezero finkoekin. Tel. 695-711730.
- Lokala traspasatzen da Isasi 19an (Mahatsondo). Tel. 686-154867.
- Garaje itxia alokagai Txomon. Prezioa adosteko. Tel. 943-207870.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Esperientziadun ekonomilaria eskaintzen da errenta aitopenak egiteko. Prezio onean. Tel. 688-856459.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: dendari, nagusiak zaindu... Tel. 632-426847.
- Mutil euskalduna eskaintzen da tabernari, dendari, terrazan kamarero, tailerlean jarduteko... Tel. 678-871570.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaeuz ere. Tel. 631-124942.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 692-588534.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 600-836168.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziekin. Tel. 632-387305.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-265293.
- Emakumea eskaintzen da supermerkatuan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 666-720829.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 632-869521.
- Neska euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. Tel. 680-923291.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziekin. Tel. 650-513412.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. Tel. 606-007742.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-139915.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-722291.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-337083.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da 16.00etatik 20.00etara nagusiak zaintzeko. Tel. 658-458061.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-641609.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-447038.
- Emakume arduratsua eskaintzen da tabernari edo sukaldari jarduteko, garbiketarako eta umeak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 697-200086.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta gaeuz. Tel. 633-401678.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-123667.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-817384.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da udaran lan egiteko. Bidali curriculum-a: eibarkafe@gmail.com
- Ileapaintzaile-ofiziala behar da Eibarko ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 659-354164. vkgl@hotmail.com
- Emakume arduratsua behar da uztailean eta abuztuan umea zaintzeko. Tel. 628-238727.
- Neska euskalduna behar da garbiketa lanak egiteko. 4 hilabeterako (ekaina, uztailea, abuztua eta iraila). Tel. 685-701034.
- Kamarera/o behar da Eibarko kafetegi batean. Bidali curriculum-a: tre@euskalnet.net
- Neska euskalduna behar da taberna batean kamarera jarduteko asteburuetan. Bidali curriculum-a 331 postakutxatilara.
- Igeltseritza, pladur eta pintura lanetan esperientzia duen pertsona euskalduna behar da. Bidali curriculum-a, argazki eta guzti: 2014akumal@gmail.com

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Hozkailu industrial berria salgai. 2'40x2'60. 4.000 euro. Tel. 688-678934.
- Gas bonbonadun 0'90eko sukaldea salgai, labearrekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
- Etxeko ogia egiteko tresna salgai. Behin erabiltuta eta bi urteko bermarekin. 50 euro. Tel. 683-117345.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosi-ko nituzke. Tel. 688-624326.
- Emaztegi soinekoa salgai. Vintage moda-koa. 40 tailakoa. Tel. 619-163031.
- Haurrak eramateko Deuter motxila eta erabili gabeko Philips Avent markako Baby Monitorea (beste logelan daudenean haurrak entzuteko) salgai. Tel. 626-144098.

6.2. Eman

- Katu pertsiarra oparitzen dut ezin dudalako zaindu. Tel. 619-163031.

6.3. Galdu/Aurkitu

- BQ markako mugikorra galdu nuen aurreko zapatu gauean, Jalki eta Koskorren artean. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 658-710933.

6.4. Bestelakoak

- Behar ez duzun hori gustora hartuko genuke gure alaba jaioberriarendako. Tel. 688-643716.

KON
TENT

K a f e t e g i a
R e s t a u r a n t
P i n t x o a k
P u b
T a s k a

KON
TENT



KON
TENT

E l k a r r e k i n
KONTENT
e g o t e k o ! ! !

KON
TENT



Belaustegi
Baserria

JATETXEA
WWW.BELAUSTEGI.COM

TELEFONOA
943 74 31 02

*Eskerrik asko
eibartarroi*

16. urteurrena



*Ondo zapaldu
hobeto bizi*

%50 *deskontua*
oinatzaren azterketa
biomekanikoan
EKAINAREN 30ERA ARTE

IKIROPODOLOGIA

IHAURRAK

IAZTERKETAK

**I OINATZAREN AZTERKETA
BIOMEKANIKOA**

I OIN DIABETIKOAREN UNITATEA

IPODOLOGIA GERIATRIKOA

I PODOACTIVA BERMEA

**I EZAGUT ITZAZU GURE
BARNE ZOLAK**

Podoactivak nazioartean patentatutako 3DScanSport teknologia dauka, eta horri esker, erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako Podoactiva barne-zola pertsonalizatuak egin daitezke.

Podoactiva bezeroen artean daude Futbol Liga Profesionaleko lehen mailako taldeak, hala nola: Real Madrid-Sanitas, Atl. Madrid, Liverpool...



POLICLINICA GIPUZKOA



943 25 61 00

Ibarkurutze Kalea, 2, Eibar



www.policlinicagipuzkoa.com